| 10.1. Emandako laguntzak itzultzen direla eta Administrazioak birgaitze-proiektuaren garapenean ekintza publikoan sortutako gainbalioan parte hartzen duela bermatzeko, dirulaguntza itzultzeko betebeharra ezartzen da, dirulaguntza jaso duten etxebizitzak eskuz aldatu direnean. | 10.1. Con el objetivo de garantizar el retorno de las ayudas concedidas y de la participación de la Administración en las plusvalías generadas por la acción pública en el desarrollo del proyecto de rehabilitación, se establece la obligación de devolución de las subvenciones percibidas en los casos de transmisión de las viviendas objeto de la subvención. |
| Birgaitzeko dirulaguntzak jaso dituzten higiezinak ezin izango dira eskuz aldatu obra-amaierako ziurtagiria ematen denetik zenbatzen hasi eta 25 urteko epearen barruan, ez bada aldez aurretik egiaztatu eskuz aldatuko den etxebizitzaren titularrak jasotako laguntzak itzuli direla.<br>Jasotako laguntza ekonomikoaren balioaren % 100 itzuli beharko da. | Los inmuebles que sean objeto de las subvenciones para su rehabilitación no podrán ser objeto de transmisión en el plazo de 25 años desde la certificación final de obra sin la previa acreditación de la devolución de las ayudas percibidas por el titular de la vivienda objeto de transmisión.<br>Se deberá retornar en todo caso el 100% del valor de la ayuda económica recibida. |
| Lasarte-Oriako Udalari itzuli beharko zaizkio etxebizitza edo lokala *inter vivos* edo *mortis causa* eskualdatzeagatik jasotako laguntzak, hala jabetzarenak nola jabetza soil edo usufruktuarenak, doakoak nahiz kostubidezkoak, obra-amaiera ziurtatu ondorengo hogeita bost (25) urteen barruan, hartzailea ez denean bizikidetza-unitateko kide izan gertakariaren aurreko 5 urteetan. Higiezina *inter vivos* edo *mortis causa* eman bazaio gertakariaren aurreko 5 urteetan bizikidetza-unitateko kide izan den norbaiti, edo higiezina ezkontideetako bati egotzi bazaio banaketa eta dibortzio kasuetan, jabe berria aurreko jabearen tokian subrogatuko da, 25 urteko hasierako epea guztiz bete arte geratzen den denboraz. | Será necesaria la previa devolución al Ayuntamiento de Lasarte-Oria de las ayudas recibidas para la transmisión «inter vivos» o «mortis causa» de la vivienda o local, tanto de la propiedad como de la nuda propiedad o del usufructo, ya sean gratuitas u onerosas, dentro de los veinticinco años (25 años) siguientes desde la certificación final de obra, cuando el adquirente sea una persona que no haya formado parte de la unidad convivencial durante los 5 años anteriores al hecho causante. En el supuesto de transmisión "ínter vivos" o "mortis causa" del inmueble a una persona que haya formado parte de la unidad convivencial durante los 5 años anteriores al hecho causante, así como en el caso de adjudicación del inmueble a favor de uno de los cónyuges en los supuestos de separación y divorcio, el/la nuevo/a propietario/a se subrogará en la posición del/de la antiguo/a propietario/a por el tiempo restante hasta el cumplimiento total del plazo inicial de 25 años. |
| Itzultzeko betebeharraren ondorioetarako, eskualdatzetzat joko da higiezina sozietate zibil edo merkataritza-sozietate bati ematea eta aipatutako erakundeen akzioak edo partaidetzak eskualdatzea. | A los efectos de la obligación de reintegro, también se considerará transmisión la aportación del inmueble a sociedades ya sean civiles o mercantiles y las subsiguientes transmisiones de acciones o participaciones sociales de las citadas entidades. |
| Diruz lagundutako higiezinen titularrek dirulaguntzaren emakidaren ziurtagiria aurkeztu | Las personas titulares de los inmuebles objeto de subvención deberán presentar la certificación de |

| | |
|---|---|
| beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan; bertan, administrazio-dokumentu hori ikusi ondoren, hipoteka-legeriaren arabera bidezkoa den jabariaz baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena egingo da. | concesión de la ayuda económica ante el Registro de la Propiedad correspondiente en el que se practicará, a la vista de dicho documento administrativo, el asiento registral de limitación dispositiva del dominio que sea procedente conforme a la legislación hipotecaria. |
| Halaber, laguntza itzuli beharko da, eskualdatzeak obra gauzatze-prozesuan dagoen bitartean egiten badira. | Esa devolución se deberá materializar también en el supuesto de transmisiones que se produzcan durante el proceso de ejecución de las obras. |
| Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko dirusarrera izango dira eta betearazpen-bidetik eskatu ahal izango dira. | Los importes a retornar tendrán carácter de ingresos de derecho público y podrán ser exigidos por vía ejecutiva. |
| 10.2. Laguntza aurreikusitako baldintzetan itzultzeko betebeharra betetzeko, *inter vivos* eskualdatzea egin denetik edo, *mortis causa* eskualdatzea egon denean, herentzia esleitu denetik 30 eguneko epearen barruan itzuli beharko da. | 10.2. El cumplimiento de la obligación de devolución de la ayuda en los términos previstos deberá tener lugar dentro del plazo de 30 días naturales desde la fecha en la que tenga lugar la transmisión “inter vivos” o de la adjudicación de la herencia en el caso de la transmisión “mortis causa”. |
| 10.3. Laguntza eman ondorengo lehenengo 5 urteetan egindako amortizazioek ez dute interesik sortuko.<br>6. urtetik aurrera, <u>diruaren legezko interesa</u> handitu beharko da, laguntza eman zenetik kontatzen hasita, amortizazio osoa edo partziala egin arte. | 10.3. Las amortizaciones que se hagan durante los 5 primeros años desde la concesión de la ayuda no generarán intereses.<br>A partir del año 6 el principal deberá incrementarse en el <u>interés legal del dinero,</u> contado desde la fecha en que la ayuda se concedió y hasta la fecha de su amortización total o parcial. |
| 10.4. Jabeak laguntzaren <u>amortizazio partzialak</u> egiteko aukera izango du, dagozkion interesak aplikatuta, hala badagokio, aurreko atalean jasotakoaren arabera. | 10.4. La persona propietaria tendrá la opción de realizar <u>amortizaciones parciales</u> de la ayuda con aplicación, en su caso, de los intereses correspondientes tal y como se contempla en el apartado anterior. |
| **11) PROZEDURA IZAPIDETZEKO ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNAK ZEIN DIREN ADIERAZIKO DA.** | **11) INDICACIÓN DE LOS ÓRGANOS COMPETENTES PARA LA INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN DEL PROCEDIMIENTO.** |
| Lasarte-Oriako Udalaren Hirigintza Sailak gauzatuko du prozeduraren instrukzioa. | La instrucción del procedimiento se desarrollará por el Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento de Lasarte-Oria. |
| Ebazpena emateko oinarri hartuko dira aurkeztutako eskabide eta proiektuei buruz aholkulari juridikoak eta sail horretako udal-teknikariek egindako txostenak. Deialdia egin duen organoak esleituko du izapidetzailea, dirulaguntza sustatu duen saileko teknikarien artetik. | La Resolución se dictará teniendo como base los informes que emitan el asesor jurídico y los técnicos municipales de dicho departamento sobre las solicitudes y proyectos presentados. Ejercerá como instructor/a el/la técnico/a del área que promueve la subvención que se designe por el órgano convocante. |

| | |
|---|---|
| Emakidaren ebazpena Lasarte-Oriako Alkatearen esku egongo da. | La resolución de la concesión competerá a la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Lasarte-Oria. |
| Onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazi denetik kontatzen hasita. Onuradunek dirulaguntza onartu dutela ulertuko da, aipatutako epean ez badute berariaz uko egin. | Los/as beneficiarios/as dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados desde el momento de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de las personas beneficiarias si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente la renuncia. |
| **12) ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA** | **12) PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.** |
| Dirulaguntzak lortzeko eskabideak deialdia egin duenari bidali beharko zaizkio, onuradunak edo haren ordezkariak sinatuta, dokumentazio erantsiarekin batera, **2020ko azaroaren 30a baino lehen (egun hori barne).** | El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones dirigidas al órgano convocante y suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo represente, junto con la documentación aneja, será hasta el 30 de noviembre de 2020 (inclusive). |
| Eskabideak udal-erregistroan edo auzoko bulegoan aurkeztuko dira, bulego-ordutegian. | Las solicitudes se entregarán en el registro municipal, o en la oficina de barrio en horario de oficinas. |
| **13) EBAZPENA EMATEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.** | **13) PLAZO DE RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN.** |
| Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 4 hilabetekoa da, eskabidea eta dokumentazio guztia aurkezten den datatik zenbatzen hasita. | El plazo máximo para la resolución y su notificación será de 4 meses desde la fecha de presentación de la solicitud con la documentación completa. |
| Nolanahi ere, oinarri hauetan araututako laguntzen emakidari buruz ebazteko, aurretik Lasarte-Oriako Udalak Basaundi Bailara auzoko etxebizitza-eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko jabekideen elkarteei emandako dirulaguntzen dagokion eskabidea ebatzi beharko da. | En todo caso para resolver sobre la concesión de las ayudas reguladas en las presentes Bases, deberá previamente haberse resuelto la solicitud de las Subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria a comunidades de propietarios para la rehabilitación eficiente de edificios residenciales en el barrio de Basaundi Bailara, correspondiente al edificio del solicitante. |
| **14) EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.** | **14) PUBLICIDAD DE LAS SUBVENCIONES CONCEDIDAS.** |
| Dirulaguntzaren emakidaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, beste datu hauekin batera: deialdia, programa, dagokion aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak. | La resolución de la concesión de la subvención será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con expresión de la convocatoria, el programa, el crédito presupuestario al que se impute, el/la beneficiario/a, cantidad concedida y la finalidad o finalidades de la subvención. |
| **15) DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.** | **15) DOCUMENTOS E INFORMACIONES QUE DEBEN ACOMPAÑARSE A LA PETICIÓN DE SUBVENCIÓN.** |

| Eskabide bat aurkeztuko da, horretarako dagoen ereduaren arabera (I. ERANSKINA), zeinaren bidez eskatzaileak adierazi beharko duen:<br><br>- Bizikidetza-unitateko kideek ez dutela beste ondasunik, aitortutakoez gain.<br>- Udalari baimena ematen diotela beharrezko datuak bil ditzan, ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eta dirusarrerei eta ondasunei buruz egindako aitorpena berrikusteko eta benetakoa dela frogatzeko. | Se presentará una solicitud, según modelo disponible al efecto (ANEXO I), mediante la que la persona solicitante deberá hacer constar:<br><br>- Que las personas que integran la unidad convivencial no disponen de otros bienes distintos de los declarados.<br>- Que autorizan al Ayuntamiento a recabar los datos necesarios para comprobar que cumple con los requisitos establecidos y a revisar y comprobar la veracidad de la declaración de ingresos y bienes realizada. |
|---|---|
| Eskabidearekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:<br><br>a) Bizikidetza-unitateko kide guztien NANaren fotokopia.<br><br>b) Birgaitu beharreko etxebizitza dagoen eraikineko jabekideen erkidegoari dirulaguntza emateko baimena eta dirulaguntzaren ordainketa egiteko bankuko kontua erkidegoaren izenean dagoela ziurtatzen duen dokumentua. Dokumentu hauetako edozein izango da baliozkoa: bankuko laburpenaren kopia; aurrezki-libretaren kopia; banku-erakundeak egindako ziurtagiria edo banku-erakundeak dirulaguntzaren eskabideko «Kontu-zenbakia» atalean jarritako zigilua.<br><br>c) Bizikidetza-unitateko kide guztiek zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagirien fotokopia.<br><br>d) Higiezinaren jabetza egiaztatzen duen agiria (eskrituraren fotokopia edo Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soila).<br><br>e) Jabekideen erkidegoko presidenteak edo, hala badagokio, erkidegoaren idazkari administratzaileak egindako ziurtagiria, non hau adieraziko den:<br><br>o Erkidegoak dirulaguntzaren xede diren obrak gauzatzea onartu izanaren erabakia.<br>o Eskatzaileak eraikina guztiz birgaitzeko ordaindu behar duen zenbatekoa, bere | La solicitud se acompañará de la siguiente documentación:<br><br>a) Fotocopia DNI de todos los miembros de la unidad convivencial.<br><br>b) Autorización para pago de la subvención a la comunidad de propietarios del edificio donde se integra la vivienda a rehabilitar y documento justificativo de la titularidad a nombre de la Comunidad de la cuenta bancaria donde realizar el pago de la subvención. Será válido cualquiera de los siguientes documentos: copia del extracto bancario; copia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «Número cuenta» del impreso de solicitud de subvención.<br><br>c) Fotocopia de las certificaciones de estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social de todos los miembros de la unidad convivencial.<br><br>d) Documentación acreditativa de la propiedad del inmueble (fotocopia de la escritura o nota simple informativa del Registro de la Propiedad).<br><br>e) Certificado expedido por la persona que ostente la condición de Presidente/a de la Comunidad de Propietarios o, en su caso, Secretario/a o Secretario/a Administrador/a de la comunidad, en el que conste lo siguiente:<br><br>o El acuerdo de aprobación por la Comunidad de la ejecución de las obras para las que se solicita la ayuda.<br>o La cantidad que debe pagar el solicitante por |

| | |
|---|---|
| etxebizitzaren partaidetza-kuotaren arabera. | la rehabilitación integral del edificio en función de la cuota de participación de su vivienda. |
| f) Xede bereko beste dirulaguntza batzuk emateko erabakiaren kopia, bereziki, partikularrei eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko emandako laguntzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailbururen 2006ko abenduaren 29ko Aginduan jasotakoak. | f) Copia del acuerdo de concesión de las otras subvenciones recibidas con la misma finalidad, en especial las Ayudas a particulares para la rehabilitación de edificios y viviendas contenidas en la Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales. |
| g) Bizikidetza-unitateko kide guztien dirusarreren ziurtagiriak:<br><br>- Eskabidea aurkeztu den unean amaitutako azken zergaldiari dagokion PFEZaren Aitorpenaren fotokopia, Foru Ogasunean, Kutxan edo Bankuan aurkeztu izanaren zigiluarekin.<br>- Eta ordaindutakoaren araberakoa ez den prestazioren bat jasoz gero, horien ziurtagiriak.<br><br>- Ez bada PFEZa aurkezteko betebeharrik:<br><br>o Beti:<br><br>▪ Foru Ogasunaren ziurtagiria, ekitaldi horretan amaitutako azken zergaldian eskatzaileak PFEZaren aitorpena egin beharrik ez duela adierazten duena.<br>▪ Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak egina.<br>▪ Lanaren etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien ziurtagiria. (10-T) | g) Certificados de ingresos de cada uno de los miembros de la unidad convivencial:<br><br>- Fotocopia de la Declaración del IRPF con el sello de haber presentado en la Hacienda Foral, Caja o Banco, correspondiente al último ejercicio vencido en el momento de presentación de la solicitud.<br>- En el caso de percibir, además, prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.<br><br>- Si no existiera obligación de declarar IRPF:<br><br>o En todo caso:<br><br>▪ Certificado de la Hacienda Foral acreditativo de la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF en el último ejercicio vencido.<br>▪ Certificado de la vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.<br><br>▪ Certificado de rendimientos de trabajo personal, de actividades económicas y premios. (10-T) |
| h) Jabetza Erregistroko indizeen zerbitzuak emandako ziurtagiria, bizikidetza-unitateko kide bakoitzaren izenean inskribatutako higiezinak ziurtatzen dituena. | h) Certificado expedido por el servicio de índices del Registro de la Propiedad acreditativo de los inmuebles inscritos a nombre de cada uno de los miembros de la unidad convivencial. |
| i) Finantza-erakundeen ziurtagiria, dituzten kontu, titulu, balio, eskubide eta gordailuei buruzkoa, azken urteko batez besteko saldoa adierazten duena. | i) Certificado de las entidades financieras relativas a las cuentas, títulos, valores, derechos y depósitos que pudieran tener, con expresión del saldo medio del último año. |
| j) Jasotako/betetako pentsio osagarriaren ziurtagiria, hala badagokio. | j) Justificante en su caso de las pensiones compensatorias recibidas/ satisfechas. |

| | |
|---|---|
| Ez dira aurkeztu beharrik izango beste administrazio-espediente batzuetan aurkezteagatik dagoeneko Udalean dauden agiriak. | No será necesario presentar aquella documentación que ya se encuentre en poder del Ayuntamiento por haberse presentado en otros expedientes administrativos. |
| Lasarte-Oriako Udalak eskatzaileari buruz beharrezkotzat jotako informazio eta dokumentazio osagarria bil dezake, laguntzaren eskabidea ongi aztertze aldera. | El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá recabar del/de la solicitante la información y documentación complementaria que estime necesaria para el correcto análisis de la solicitud de ayuda. |
| **16) AKATSAK ZUZENTZEA ETA AURRETIKO EBALUAZIOA.** | **16) SUBSANACIÓN DE DEFECTOS Y PREEVALUACIÓN.** |
| Organo izapidegilearen esku egongo da eskabideak deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen direla eta aurreko paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztu direla egiaztatzea; organo horrek zuzenketa eskatu ahal izango du, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.5. artikuluari jarraikiz. Eskatzaileak eskabideari uko egin diola ulertuko da, baldin eta ez badu eskatutako dokumentazioa aurkeztu edo ez baditu akatsak zuzendu, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean. | La comprobación de que la solicitud reúne los requisitos exigidos en esta convocatoria y de que se aporta la documentación a que se refiere el párrafo anterior competerá al órgano instructor que podrá requerir la subsanación de conformidad con el artículo 23.5 LGS. A quienes no aportaran la documentación requerida o no subsanaran los defectos después de requeridos en el plazo máximo e improrrogable de diez días, se les tendrá por desistidos de su solicitud. |
| **17) DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA.** | **17) PAGO DE LA SUBVENCION.** |
| Eskatzailearen aurretiazko baimenarekin, dirulaguntzak zuzenean ordainduko zaizkio birgaitu beharreko eraikineko jabekideen erkidegoari, prozedura honen arabera: | El pago de las subvenciones se realizará, previa autorización por el solicitante, directamente a la Comunidad de Propietarios/as del edificio objeto de rehabilitación donde se integra su vivienda, de acuerdo al siguiente procedimiento: |
| a) Lehenengo ordainketan, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15 ordainduko da, ordainketa-eskabidea aurkeztu ondoren, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira: | a) Un primer pago del 15% del importe de la subvención se abonará tras la presentación de la solicitud de pago, según modelo disponible al efecto, a la que acompañará la siguiente documentación: |
| o Obra-gauzatzeaz arduratzen den enpresarekin edo enpresekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia; kontratu horrek diruz lagunduko diren obra guztiak gauzatuko direla bermatu behar du.<br>o Obra Hasieraren Aktaren kopia, jabekideen erkidegoko presidenteak, eraikuntza-enpresako ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatuta.<br>o Higiezinari dagokion jabariaz baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatzearen ziurtagiria. | o Fotocopia del contrato o contratos con la empresa o empresas responsables de la ejecución de la obra que garanticen la ejecución de la totalidad de las obras objeto de subvención.<br>o Copia del Acta de Inicio de Obra firmada por el presidente de la Comunidad de propietarios, el representante de la empresa constructora y la dirección facultativa.<br>o Justificante de la inscripción en el Registro de la Propiedad del asiento registral de limitación dispositiva del dominio correspondiente a su inmueble. |

| | |
|---|---|
| b) Bigarren ordainketan, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 40 ordainduko da, ordainketa-eskabidea aurkeztu ondoren, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira: | b) Un segundo pago del 40% del importe de la subvención se abonará tras la presentación de solicitud, según modelo disponible al efecto, a la que acompañará la siguiente documentación: |
| o Obra gauzatzeko zenbatekoaren % 50 gutxienez ordaintzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako dagokion obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da. | o Facturas que cubran, como mínimo, el 50% del importe de ejecución de la obra. Las facturas se acompañarán de la correspondiente certificación de obra expedida por la Dirección Facultativa. |
| c) Falta den zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo artikuluak adierazten duen moduan. | c) El importe restante se abonará previa comprobación y aprobación de la cuenta justificativa, según se indica en el siguiente artículo. |
| Ez dira ordainduko egiaztatu direnak baino kopuru handiagoak, faseen arabera. | En ningún caso se abonarán cantidades superiores a las justificadas, según fases. |
| **18) ONURADUNAK ESKURATUTAKO DIRULAGUNTZA HASIERAN JARRITAKO HELBURURAKO ERABILTZEN ARI DELA JUSTIFIKATZEKO DITUEN EPEA ETA MODUA.** | **18) PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN POR PARTE DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS DEL CUMPLIMIENTO DE LA FINALIDAD PARA LA QUE SE CONCEDIÓ LA SUBVENCIÓN Y DE LA APLICACIÓN DE LOS FONDOS PERCIBIDOS.** |
| Onuradunak dirulaguntzaren hasierako xedea betetzen ari direla justifikatzeko eta jasotako funtsak aplikatzeko epea bi hilabetekoa izango da, eraikina birgaitzeko obrak amaitu direnetik kontatzen hasita, eta inola ere ezingo da 2021eko azaroaren 30a baino geroago izan. | El plazo de justificación (por parte de las personas beneficiarias) del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos será de dos meses contado a partir de la finalización de las obras de rehabilitación del edificio, sin que, en ningún caso, pueda superar la fecha de 30 de noviembre de 2021. |
| Justifikatzeko modua justifikazioko kontu baten bidez izango da eta agiri hauek aurkeztu beharko dira: | La forma de justificación será mediante cuenta justificativa, debiendo presentarse la siguiente documentación: |
| • Justifikazio-kontuaren jakinarazpena, horretarako dagoen ereduaren arabera. | • Comunicación de cuenta justificativa, según modelo disponible al efecto. |
| • Obra amaitzearen ziurtagiria, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatua. | • Certificado de final de obra, suscrito por la Dirección facultativa de la obra. |
| • Obra gauzatzearen fakturak, lehendik aurkeztu ez direnak. | • Facturas de ejecución de obra que no hayan sido ya presentadas con anterioridad. |
| • Erkidegoko presidenteak, idazkariak edo administrariak egindako dokumentua, non jasoko | • Documento expedido por la persona que ostente la Presidencia o, en su caso, la Secretaría o la - |

| | |
|---|---|
| den zenbateko ordainketak egin dituen dirulaguntzaren onuradunak eta zenbat ordaindu behar duen azkenean dagokion birgaitze-obraren multzoagatik. | Administración de la Comunidad, en el que conste la cuantía de los pagos realizados por el/la beneficiario/a de la subvención, y la cuantía a pagar por el conjunto de la obra de rehabilitación que finalmente le corresponde. |
| • Erkidegoko presidenteak, idazkariak edo administrariak egindako dokumentua, zeinak eskatutako eta/edo emandako beste dirulaguntza batzuk ziurtatuko dituen. | • Documento expedido por la persona que ostente la Presidencia o, en su caso, la Secretaría o la -Administración de la Comunidad que certifique otras subvenciones solicitadas y/o concedidas. |
| **19) DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ITZULTZEA, EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN EZ BADIRA.** | **19) DEVOLUCIÓN DEL IMPORTE DE LAS SUBVENCIONES EN CASO DE POSIBLES INCUMPLIMIENTOS DE LAS CONDICIONES IMPUESTAS.** |
| Ez bada aurkezten higiezinaren jabariaz baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatzearen ziurtagiria, emandako laguntza ezeztatuko da. | La no aportación del justificante de la inscripción en el Registro de la Propiedad del asiento registral de limitación dispositiva del dominio del inmueble, supondrá la resolución de la ayuda concedida. |
| Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako terminoetan, dirulaguntzen emakidagatik ezarritako baldintza bat edo batzuk ez badira betetzen, edo epez kanpo betetzen badira, baldintza guztiak edo epea betetzea erabakigarria bada lortu nahi den helburu publikorako, eskubide osoa galduko da eta, hala badagokio, itzuli egin beharko da. | El incumplimiento de alguna o algunas de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones en los términos establecidos en el art. 37 LGS o su cumplimiento extemporáneo, cuando el cumplimiento total de las condiciones o del plazo fuera determinante para la consecución del fin público perseguido, será causa de pérdida total del derecho y de reintegro, en su caso. |
| Administrazioko zerbitzuek egiaztapena edo finantza-kontrola egitean, agerian jartzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza jaso ondoren, dagozkion hartzekodunek galdagarri izanik, laguntza itzultzeko eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz, eta, horretarako, ordaindu ez diren gastuekiko proportzioan itzuli beharko da dirulaguntza. | Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados. |
| **20) DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZIGOR ADMINISTRATIBOAK. ZEHAPEN-PROZEDURA.** | **20) INFRACCIONES Y SANCIONES ADMINISTRATIVAS EN MATERIA DE SUBVENCIONES. PROCEDIMIENTO SANCIONADOR.** |
| Arlo honetan, LASARTE-ORIAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRAREN VIII KAPITULUAN ezarritakoa beteko da. | En esta materia se estará a lo dispuesto en el Capitulo VIII de la ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA. |
| **21) EBAZPENAK ADMINISTRAZIO-BIDEA AMAITZEN DUEN ADIERAZTEA.** | **21) INDICACIÓN DE SI LA RESOLUCIÓN PONE FIN A LA VÍA ADMINISTRATIVA.** |

| | |
|---|---|
| Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso denetik kontatzen hasita, ebazpena eman duen organoan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian, Atotxa Jauregia, Kalkutako Teresa Plaza 1. | La Resolución pone fin a la vía administrativa pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la Resolución o recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, con sede en el Palacio de Justicia de Atotxa, sito en la Plaza Teresa de Calcuta nº 1. |
| **22) DATU PERTSONALAK BABESTEA.** | **22) PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.** |
| Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztean, eskatzaileak aditzera ematen du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta erabat onartzen dituela oinarri hauek. Halaber, aditzera ematen du eskabidean dauden datu pertsonalak bere baimenarekin jasoko direla eta baimena ematen duela datu horiek automatikoki tratatzeko eta Lasarte-Oriako Udalaren fitxategi baimenduetan sartzeko; era berean, baimena ematen du datu horien erabilera udalaren kudeaketara mugatu dadin, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo komunikatu ahal izango zaizkie, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legean (abenduaren 13ko 15/1999 Legea) ezarritako baldintzetan. | Con la presentación de la solicitud de subvención, la persona solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente estas bases. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Lasarte-Oria y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal. |